

Deiadar kanpainaren  
amaiera

## erreakzioak

**Paulo Agirrebaltzategi** ♦ EKBko lehendakari ohia

Baionara etorri naiz elkartasuna agertzeko eta elkartasuna bilatzeko, zeren biak egin behar baitira. Ene ustez, ez gatzog Hegoaldetik elkartasuna emateko bakarrik, indarrak bilatzera ere bai. Eskatzen duguna, euskararen ofizialtasuna, gutzit garrantzitsua da. Ofizialtasunik gabe ez da inondik ere euskararen aldeko planingiza orokorra eginen ahal.



Guztiz garrantzitsua da, eta funtsezkoa. Era berean, Frantziako Estatuak Europako Ituna izenpetu

behar du, eta bi oinarriko eskakizun horiek defenditzeko Baionan elkarretatu behar ginen gaur. X

**Andre Darraidou** ♦ Ezpeletako auzapeza

Hemen bildu behar ginen gaur, eta ez genuen hitzordu hori huts egin behar. Euskara hilzoria da eta, hautetsi bezala, ez dakigu gehiago nola jokatu behar dugun. Anitz jende bildu behar



dugu erakusteko Parisko Gobernuari ondareko altxor bat desagertzeko arriskuan dagoela. Parissek uterutu behar du euskara defenditzea bere eginbidea dela, eta guk, hautetsiek, behar dugu mezu hori helarazi. Espero nuen hautetsi anitz bilduko zirela, baina, ene ustez, ez ginen aski. Beharrik, jende anitz bildu da. Epe laburrean lan handia izanen dugu hemengo

hautetsiak gureganatzeko eta euskararen eskubideak defenditzeko. Lurralde eskemari dagokionez, badi-rudi hautetsiek bozkatu dutela gogoretatu ez zuten proiektua, eta maila horretan ere lan anitz izanen dugu. X

**Koldo Ameztoi** ♦ Ipuin kontalaria

Nire familiarekin etorria naiz manifestazioa, zeren gure haurrak izanen dira Euskal Herriko geroa azken finean. Euskara biziarazteko, euskaraz ikasteko eta euskaraz bizitzeko aukera eman beharko zaie. Frantsziako Gobernuak



erantzukizun handia du euskara behar dugun horiek defenditzeko, eta mezu entzunarazi behar dugu Parisera. Elkarretaratzea xarmanki iragaten da, eta biziki kontent naiz, zeren jende parrasta bildu baita, alde guztieta-

koa, eskualde guztiakoa. Honelako elkarretaratzeak indartsuak dira eta indarrak ematen dituzte aitzinera joateko. X

**Ximun Haran** ♦ Ipar Buru Batzareko lehendakari ohia

Ez dut honelako manifestazio ederrik ikusi azken hamabost urteotan. Iruditzen zait honelako azken elkarretaratze jendetsua egina izan zela Burgosko auzia salatzeako. Argi da Ipar Euskal



Herri osoak erantzun diola deiari, eta herri guztiak jendea elkarretaratuta da Baionan. Elkarretaratzea zinez bera eta hunkigarria da, nola-bait zimikoa egiten du bihotzean. Hala ere, azpimarratu behar da hautetsi gutxi agertu direla. Herriak frogatu beharko du berri bere geroa bere eskuetan hartuko duela gauzak

aitzinarazteko. Lehen froga ederra eman du arratsalde honetan. X


**Caroline Phillips** ♦ Basque Multimedia lantegiko zuzendaria

Gaurko egunean Baionara etortzea beharrezkoa iruditu zitzaizkidan, euskararen alde, gure hizkuntza defenditzeko. Alabaina, artista izan arren, azpimarratu nahiko nuke etorri naitela enpresa baten nagusi bat bezala eta enpresa munduko kide ugari bildu dira gaur. Garrantzitsua da Euskal Herrian euskaraz egiteko aukera izatea lantegietan eta eguneroko bizian. Euskara biziarazteko, funtsezkoa izanen da erakustea lan egin daitekeela euskaraz. Euskararen ofizialtasuna lortzea premiako urratsa izanen da normalizazioaren bidean. X



**Anjel Mari Elkano** ♦ HBKko mahaikidea

Hona etorri gara Ipar EUuskal Herriko anai-arrebei elkartasuna adieraztera. Frantziako Estatuak eta Espainiak partizio gogorra inposatzen digute, eta nazio bat garela erakutsi behar dugu urteko egun



guztietan. Europako hizkuntza zaharrena izan arren, Frantziako Estatuak ez du ezagutu nahi euskaraz, eta oinarriko eskubideak zangopilatzen ditu. Herri honen hizkuntza eta kultura suntsitu egin nahi dute. Eraso horri aurre egiteko, Deiadarrek egindako deiarekin bat gatzog eta HBK ordezkantza bidali du Baionara gaur. Kamelele Aierberekin batera, gure babes gutzia eta elkartasuna osoa adierazi nahi diegu Ipar Euskal Herriko eskualtzaleei. X

## Adarrik ez jo guri!

## iritzia

## Itxaro Borda

Idazlea eta Deiadar kanpainako koordinatzailea



DEIADAR kanpainaren laugarren aldiaren ingurumen soziolinguistikoa latza dela ez dukegu errepikatzerik. Alabaina, 1996an eraman zen hizkuntzaren orainari buruzko ikerketaren emaitzek ez ziguten alegatzeak aitzakiarik eskaini: argiki agertzen da hortan, Iparaldean eta edozein lekutan, gure ustez izan zitezkeen gune salbatuak baina holakorik ez da gehiago, hizkuntzaren geroa iluna dugu. Iparaldeko Erriberak bila gaitzeko epe labur batean deus ez baldin bada egiten!

Egoera beltz hortan ordea gauzak antolatzen dira, kultur elkarteak, eskola elebidunak, ikastolak, kirol taldeak eta beste hainbeste jendarteko sektore, galerari aurpegia aitzinarazteko: mintzairaren ixuria ura eskuetan nola abtiki nahi genuke guzkiek, eta hori da gure gaur egun desafio erraldoia. Aurrerako erriak tinkka eta herriaren indarrak atxiki! Badakigu hartatik herriak berak, ikusiz den langabezia eta jendeen adina, ez duela aterabiderik kausitzen ahal: botere publikoen parte hartzea ezinbestekoa zaigu. Ekile herriarrek indar egiten dute botere politikoak ere bere lan zatiaz axola daitezken.

Kontexto hortan landu zen 1996-1997. urteetan zahar garapen kontseiluaren zuzendaritzapean, lurralde antolaketa eskemaren bamean azaltzen den hizkuntz atal hurra. 1997ko maiatzaren 22an, Iparaldeko hautetsien kontseiluak baieztatu zituen beraz, hizkuntz atal hortan euskararen biziarazteko eta garatzeko finkatuak ziren bost puntuak: erakaskuntza alorrean adibidez euskarazko bi ereduak diru baliabideak emaitza zen helburu, gero hurbil batean sar zitezten Iparaldeko ikasleen %40ak; sail berdinean

zegoen Barnealdeko lau ikastolen egoitza egokitzea; bigarren puntua helduen alfabetatze mugimenduari zegokion; hirugarrenaren, aldiz, euskarazko kanpoko seinaleetika hunkitzen zuen; laugarrenez zetozen euskal komunikabideak eta azkenak euskararen erabilpena administrazioan sustatzea zuen xede. Dakizuenez, 1997ko abenduaren 15ean Parisen bildu zen CIADTak hizkuntz ataleko ez zuen dirubiderik ireki, bizpahiru asmo deklarazio salbu.

Hizkuntzarentzat ezer ez eta Nicole Pery kostaldeko orduko deputatuaren prentsa agerpen hanpatuek: «C'est un véritable cadeau de Noël» ziola sortu zuten euskal kultur munduaren kezua, eta ondorioz urtea. «Hitzak aski, ikastolak eraiki» lempaen manifestatuz hasi genuen. Baionako suprefeturaren aitzinean, 3.000 jende lekuko, aipatu zen laugarren Deiadar kanpainaren behar goria.

Kanpaina honen kontextoaren osoki biribilkatzeko erraitetako da iragan larrazkenean Jospin frantses estado-ko lehen ministroak Nicole Pery deputuari eskualdeko hizkuntzen egoeraz eta haien premiaz ikerteta misioa bat luzatu ziola. Ene honetan Nicole Pery estado sekretario bilakaturia da, baina misioa bururaino joan den delako segurtamena zabalitzen digu, eta orain Kenperreko auzapezaren gidaritzapean. Euskarak alde orotarik pairatzen dituen erasoaren aurrean, askok eta askok pentsatzen dute gaur dela momentoa zerbaitein galdatzeko eta agian erdiesteko.

Deiadar IV. hasi zen beraz urtarilaren 26an Baionan eman zen prentsaurreko batez, apirilaren 4an manifestaldi handi batekin bukatzeko ideiarekin. Arteen bildu ziren elkarte anitz, 12 bat naski xede horren lanteko, bideratzeko edo eskakizunen finkatzeko. Sinadura kanpaina emanorko suertatu

zen, 12.000 jende Iparalde guzian Deiadarraren agirien pean pausatu baitzuten; lekuan lekuko antolaketa koordinakundearen itxuran moldatu ziren ikastolak, sare elebidunak, gau eskolak, kultur taldeak bame, kanpainaren ahal bezainbat oihartzun emaitzen. Herriko Etxe eta hautetsiei buruzko bideak berdinki aberats izan ziren; 30 bat auzapezek beren kontseiluaren euskararen aldeko mozio-nez bozkatu eta izenpetu zutelarik.

Kanpaina honen beste alde bat agertzeko dugu hemen: euskaldunen eta Frantziako beste eskualdeen eskakizunen parekotasuna. Martxoaren 7an bilkura bat egin zen Naonedan, katalan, bretoiandak, okzitandak, altzaziar eta euskaldunen artean, halako plataforma bateratu baten idazteko, gure mintzairaren ofizialtasunaren lortzea helburu. Atzo, Baionan bezala, Rennesen manifestatu zuten bretoiandarrak antzeko lema karrikaratu. Okzitandarrak apirilaren 18an dute hizordea.

Kanpaina honen berezitasunetan azkenik zera azpimarratu daiteke: euskararen erakaskuntzako bi ereduak, elebakarra eta elebiduna, hau da, Seaska, Ikas-bi eta Euskal Hizakiak elkarrekin lan egin zuten publikoki mahain-inguruetan agertuz adibidez. Interes eta arazo berdinarik ditugu haurren euskalduntze sail hortan argiki. Ikastolentzat egoitza publikoak eskatuz montatu zela Hazpamerainoko karrakoi ibilbide bat, martxoaren 14an, ahantzi gabe.

Hona guti gora behera laugarren Deiadar kanpaina hortako barruko saftak! Bi hilaitez elkarre ezberdinek batera lan egin dute, euskararen ofizialtasunaren gaiaren inguruan jurtatu. Orain edo sekula ez ideiak buztaturik.

Adarrik ez jo guri! Bete hitza, euskarari lege geriza dioque... X

## Andoaingo Udala

## IRAGARKIA

**HILOBIAK ESLEITZEKO ESKAERAK**  
Kontratuaren xedea: Pagadigarriko Udala Hilerraren 11. fasearen barne eraikitako 129, 156, 170, 168, 181, 184 eta 189 zenbakiko fosen emakidaren eslepena. Lizitazio mota: 950.000.-pezetak. Espedientea non azter daitezkeen eta Klausula Ekonomiko-Administrazioen Plegua non eskura daitezkeen: Andoaingo Udaletxeko Hirigintza, Obrak, Ingurugiro eta Landa Inguruerako Departamentuko bulegoetan ikusgai egongo dira, iragarri hau argitaratzen denetik proposamenarik aurkezteko epea amaitzen den arte. Behin-behineko bermea: 25.000.-pezetakoa. Proposamenarik aurkezteko epea: 1998ko apirilak 30, Andoaingo Udaletxeko Hirigintza, Obrak, Ingurugiro eta Landa Inguruerako Departamentuko bulegoetan, goizeko 9,00etatik 14,00-etera. Andoain, 1998ko apirilak 2. ALKATEA